



## **OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN LANDA LURSAILAK ESKURATZEKO LEHIAKETA**

**-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –**

<b>ESPEDIENTE KODEA:</b>	2026ON090002
--------------------------	--------------

### **KARATULA**

#### **1.- XEDEA:**

Lehiaketa honen xedea Oiartzungo Udalak Oiartzungo udalerrian dauden eta ingurumen balioak galtzeko arriskuan izan daitezkeen eremuak edo landa lursailak eskuratzea da, bertako espezie, baso eta ekosistemen kontserbazioa indartzeko eta bioaniztasunaren galera geldituko duten politikak sustatzeko helburu nagusiarekin, baita egurgintza eredu jasangarriago bat martxan jartzeko ere.

**CPV kodea:** 70322000-4 Hutsik dauden lursailak alokatzeko edo saltzeko zerbitzuak

#### **2.- ESLEIPEN PROZEDURA:**

Irekia.

#### **3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:**

Ohiko izapidetza.

#### **4.- AURREKONTUA ETA PREZIOA:**

Lehiaketarako **aurrekontua 15.000 eurokoa** da. Lursailak eskuratu ahal izango dira, aurrekontu hori agortu arte.

Halaber, lursail guztietarako, ezarritako **gehieneko hektareako prezioa 3.500 eurokoa** da, **zergak barne**.

Parte hartzaileek beren eskaintzetan lursail bakoitzaren hektareako prezioa zehaztu beharko dute, Udalak ezarritako prezioa hobetuz, hau da, 3.500 euro/Ha-ko kopurua baino txikiagoa den beste kopuru zehatz eta finko bat proposatuz.

Parte hartzaileek egindako eskaintza horiek ezingo dute gainditu ezarritako gehieneko hektareako prezioa, ezta aurrekontuan zehazten den guztizko zenbatekoa ere. Ezarritako gehieneko hektareako prezioa edo aurrekontuaren kopuru osoa gainditzeko duten eskaintzak zuzenean baztertuak izango dira.

Lursailen guztizko prezioa azaleraren neurketa erreala egin ondoren finkatuko da, eskaintzaileak lurzatia definitu eta mugatu ondoren Udalak jasoko duen plano topografikoaren arabera.

Halaber, parte hartzaileek egiten dituzten proposamenetan sartuta daudela ulertuko da lurrak besterentzeko sortutako edo sortu beharreko gastu guztiak eta, zehazki, honako hauek: esleipendunak ondasun higiezina entregatzeko egin behar dituen gastuak, besterendu beharreko finka aldez aurretik erregistroan inskribatzeari dagozkionak, finkaren banaketa egiteko beharrezkoak direnak, higiezina kargatzen duten hipoteka-kargak erregistrotik kentzeari eta ezerezteari dagozkien gastuak, etab. Kontzeptu horietako bat ere ezingo da, gero, kontzeptu edo partida independente gisa jasanarazi.

#### **5.- FINANTZAKETA ETA ORDAINTZEKO MODUA:**

Lehiaketa honek dakartzan ordainketak egiteko finantzaketa aurreikusia dago aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura, espedientean zehaztu den partidan.

Oiartzungo Udalak dagokion prezioaren ordainketa eskritura publikoa egilesteko egintzaren ondoren egingo da.

#### **6.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:**

**30 egun natural**, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

#### **7.- LEHIAKETAREN PUBLIZITATEA:**

Lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baita Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean ere ([www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.

#### **8.- ALDAERAK:**

Ez dira onartzen.

#### **9.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:**

**IRIZPIDE AUTOMATIKOAK.....100 PUNTU**

##### **A) Ezaugarri teknikoak (80 puntu gehienez)**

##### **A.1. Batasunaren intereseko habitatak (20 puntu)**

Babestu beharreko eremuek balio nabarmena dute naturaren eta zientziaren ikuspegitik, eta oso hauskortasun handia, berriz, bertako flora, fauna eta kultura direla-eta. Horregatik, hain zuzen, babes bereziko kategoria duten eremu horiek funtsezkoak dira ekosistemen kontserbaziorako. Babes bereziko kategoria horren barruan, interes handieneko landareak sartzen dira, hala nola, bertako basoak eta batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak.

Hori horrela izanik, lursailek **batasunaren interesko habitat** kategoria izatea baloratuko da, kategoria hori duten lursailei 20 puntu emanaz (Geoeuskadi atarian kontsultatu daiteke-Batasunaren Intereseko Habitatak).

#### A.2. Ingurumen babeserako sailkapena (15 puntu)

Eskaintako lursaila **ingurumen babeserako sailkatuta** egotea baloratuko da, egun indarrean dauden lurralde antolamendu tresnen arabera sailkapen hori duten lursailei - besteak beste, 3/98 Legeak jasotako babes-maila izatea (biotopo, zuhaitz berezi edo parke natural), Natura 2000 sarean izatea, edo Ibaiak eta Errekak Antolatzekeo babes-eremuan izatea- 15 puntu emanaz.

#### A.3. Herriko ur-sareari egiten zaion ekarpena (15 puntu)

Oiartzungo uraren kalitate ona bermatzeko, **Portuberri eta Epeleko ur-hartuneetan eragina izan dezaketen lursailak** baloratuko dira. Zehazki, ur-hartune horien gainaldean dauden Martuzenegi mendiko lursailei 15 puntu emango zaizkie.

#### A.4. Lursailaren azalera (15 puntu)

Eskaintako lursail bakoitzaren **azalera** baloratuko da. Azalera handieneko lursaila eskaintzen duenari 15 puntu emango zaizkio, eta gainerako eskaintzak honako formularen arabera baloratuko dira:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{\text{Pb}}{15} \times \text{Po}$$

Pb= Balioesteko eskaintzako lursailaren azalera (Ha-tan)

Po= Azalera handiena duen lursaila (Ha-tan)

#### A.5. Udal jabegoko lursailekiko gertutasuna (15 puntu)

Oiartzungo Udalaren jabegokoak diren lursailekin **muga egitea** edo lursail horiekiko **gertutasuna** baloratuko da, modu honetan:

- Udal jabegoko lursailekin muga egitea: 15 puntu
- Udal jabegoko lursailetatik 500 metro baino gutxiagoko distantziara egotea: 10 puntu

#### **B) Eskaintza ekonomikoa (20 puntu gehienez)**

Lursail bakoitzari dagokion **hektareako prezioa** baloratuko da. Ezarritako gehieneko hektareako prezioa -3.500 euro/Ha- berdintzen duenari 0 puntu emango zaizkio, eta preziorik baxuena eskaintzen duenari 20 puntu. Gainerako eskaintzak honako formularen

arabera baloratuko dira:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{\text{Pb}}{20 - \text{Po}}$$

Pb= Eskaintzarik baxuena

Po= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

Ezarrিতাকo gehieneko hektareako prezioa gaititzen duten eskaintzak edo aurrekontuan zehaztutako kopuru osoa -15.000 euro- gaititzen dutenak zuzenean baztertuak izango dira.

Lursailen guztizko prezioa azaleraren neurketa erreala egin ondoren finkatuko da, eskaintzaileak lurzatia definitu eta mugatu ondoren Udalak jasoko duen plano topografikoaren arabera.

Halaber, parte hartzaileek egin dituzten proposamenetan sartuta daudela ulertuko da lurra besterentzeko sortutako edo sortu beharreko gastu guztiak eta, zehazki, honako hauek: esleipendunak ondasun higiezina entregatzeko egin behar dituen gastuak, besterendu beharreko finka alde aurretik erregistroan inskribatzeari dagozkionak, finkaren banaketa egiteko beharrezkoak direnak, higiezina kargatzen duten hipoteka-kargak erregistrotik kentzeari eta ezerezteari dagozkien gastuak, etab. Kontzeptu horietako bat ere ezingo da, gero, kontzeptu edo partida independente gisa jasanarazi.

## **I. PROZEDURAREN NONDIK NORAKOAK**

### **1. ESLEIPEN PROZEDURA**

Oiartzungo udalerrian dauden landa lursailen eskuratzea prozedura irekiaren bidez egingo da, eta ohiko izapidetzea jarraituz.

Esleipena egiterakoan, karatularen 9. atalean zehaztutako irizpideak hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

### **2. PARTE HARTZEKO GAITASUNA**

1.- Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez baldin badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez aurkeztu ahal izango dute proposamena. Pertsona juridikoen ordezkariak, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkie.

Parte hartzaileek, halaber, ezingo dute ordaindu gabeko zorrik eduki Oiartzungo Udalean premiamendu bidean.

2.- Pertsona batek baino gehiagok batera egindako proposamenak aurkeztu daitezke, beti ere pertsona horiek Oiartzungo Udalarekiko solidarioki behartzen baldin badira agiri honetako baldintzei dagokienez, haren aurrean izan ditzaketen eskubideak eta betebeharrak zatiezintzat hartuta.

3.- Parte hartzaile bakoitzak nahi beste lursail eskaintzeko aukera izango du, baina proposamen bakarria aurkez dezake lursail bakoitzeko, bakarrik edo beste pertsona edo enpresa batzuekin batera. Parte hartzaile batek proposamen bat baino gehiago aurkezten badu lursail bakoitzeko, izan bakarrik edo beste pertsona edo enpresekin batera, ez da onartuko hark aurkeztutako proposamenik.

4.- Proposamena aurkeztearekin parte hartzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela kontratatzeke ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak. Era berean, proposamena aurkeztearekin parte hartzaileak mahaiari eta kontratazio organoari Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko baimena ematen dio.

### **3. LANDA LURSAILEN EZAUGARRIAK**

Oiartzungo udalerrian kokatzen diren eta landalur izaera duten honako lursailak eskuratu ahal izango dira: basoak, landatutako basoak, ibaiertzeko basoak, zuhaixkak eta sastrakadiak.

Lursailek gutxienez hektarea bateko azalera izan behar dute, honako kasuetan izan ezik:

- Eskainitako lursaila Jabetza Erregistroan bereizitako finka bat izatea.
- Eskainitako lursaila Oiartzungo Udalaren jabegokoa den lursail baten mugakide izatea, eta bi lursail horien baturak hektarea bat baino gehiagoko azalera izatea.
- Aurkezten diren gainerako eskaintzetako lursailen mugakide izatea, eta mugakide diren lursail horien baturak hektarea bat baino gehiagoko azalera izatea.

Edozein kasutan, bereizten den lurzatiaren finka nagusiak hektarea bat baino gehiagoko azalera izan behar du.

Halaber, lursailak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Erregistroko finka osoa eta independentea izatea, eta eskaintzailearen izenean inskribatuta egotea Jabetza Erregistroan.
- Mota guztietako kargetatik libre egotea, hirigintzakoak, errentariak, okupatzaileak eta prekaristak barne.
- Egunean egotea gastu, zerga eta erkidego-kuota guztien ordainketan.

Zor ekonomikoak ordaindu gabe egonez gero, bi aldeen artean onartutako prezioetik kendu ahal izango dira, eta era berean jokatu ahal izango da udal-administrazioarekin zorrak baldin baditu. Higiezina kargarik gabe egon behar den unea salerosketako eskritura publikoaren momentua izango da, eta prezioetik kendu ahal izango da edozein karga ezabatzea, saltzaileak bere gain hartuz, baita hura ezabatzearen ondoriozko kostuak ere.

Gainera, Jabetza Erregistroan eta katastroan jasotako informazioa, lursailaren azalerari dagokiona, ez bada bera, Jabetza Erregistroan dagoen informazioa hartuko da prezioaren kalkulua egiteko oinarritzat. Esleipenduna ez badago ados Jabetza Erregistroko azalerarekin, aukera emango zaio plano topografiko baten bitartez lursaila definitu eta mugatzeko eta Jabetza Erregistroan inskribatu arteko prozedura aurrera eramateko, baita, beharrezkoa balitz, Katastroan azalera zuzentzeko ere.

#### **4. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

1.- Lehiaketa honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazioa, Oiartzungo Udalean (Done Eztebe plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, argitaratzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke kontratatzailearen profilaren bidez, [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) helbidean.

Gainera, parte hartzaileek baldintza agiriei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruz informazio gehigarria eska dezakete, proposamenak aurkezteko ezarritako epemuga baino gutxienez 12 egun lehenago, eta informazio hori aipatutako epea amaitu baino 6 sei egun lehenago emango da.

Epea: parte hartzaileek beraien proposamenak lehiaketaren iragarkia **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik** kontatzen hasita **HOGETA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO** epean aurkeztu beharko dituzte.

2.- Proposamenak Oiartzungo Udalaren sarrera erregistroan aurkeztu ahal izango dira aurrez aurre, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baldiodunetan, baita elektronikoki ere, Oiartzungo Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez ([Oiartzungo Egoitza elektronikoa \(gipuzkoa.eus\)](http://Oiartzungo.Egoitza_elektronikoa_gipuzkoa.eus)).

3.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira hurrengo klausulan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita artxibo bakoitzean jaso beharreko dokumentu-edukia.

4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira. Horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

## 5. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak jarraian adierazten diren “A” eta “B” ARTXIBO ELEKTRONIKOETAN edo KARTAZAL ITXIETAN aurkeztuko dituzte parte hartzaileek edo parte hartzaileen ordezkari diharduten pertsonak.

2.- **“A” ARTXIBO ELEKTRONIKOAK edo KARTAZAL ITXIAK “OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN LANDA LURSAILAK ESKURATZEKO LEHIAKETA. GAITASUNAREN EGIAZTAGIRIAK ETA LURSAILEN EZAUGARRIAK**” titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- Parte hartzailearen **nortasuna egiaztatzeko dokumentuak**.
  - Parte hartzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero.
  - Parte hartzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.
- Proposamenaren **sinatzailearen ordezkari egiaztatzen duen dokumentazioa** (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).
- **Ardurapeko adierazpena**, agiri honen **I. eranskin**eko ereduaren arabera.
- Eskainitako **lursail bakoitzeko, honako dokumentazioa**:
  - Eskainitako lursail bakoitzeko, higiezinaren deskribapena, haren izena eskrituren arabera, finka zenbakia, katastroko erreferentzia, azalera eta eskaintzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, besteak beste, erregistroko ziurtagirian jasotakoez gain beste errentamendurik eta kargarik ez dagoela adierazten duena, agiri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera.
  - Eskainitako lursail bakoitzaren gaineko jabetza-titulua, Jabetza Erregistroan

inskribatua.

- Eskaintako lursail bakoitzari dagokion Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, eskaintako higiezinaren titulartasunari buruzkoa, kargak, mugak eta azalera adierazita.

Halaber, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Proposamenaren balorazioa errazte aldera, lursail bakoitzaren azalera-dimentsioen agiri bidezko justifikazioa (planoak, argazkiak, ortoargazkiak, etab.), aintzat hartuta kontuan hartuko den azalera Udalak egindako neurketa errearen arabera izango dela, eskaintzaileak lurtzia definitu eta mugatu ondoren Udalak jasoko duen plano topografikoaren baitan.
- Partzela-zedula, eta, halakorik izanez gero, eskaintako lursail bakoitzaren plano topografikoak.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute parte hartzaileek, ardurapeko eta erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Parte hartzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua epe horretan behar bezala aurkeztu ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere proposamena.

- \* *Pertsona batek baino gehiagok batera parte hartzen badute, pertsona horietako bakoitzak bere gaitasuna egiaztatuko du, ardurapeko adierazpena aurkeztuz, agiri honen I. Eranskineko ereduaren arabera.*

*Gainera, lehiaketatik sortutako betebeharrak betetzeko eta eskubideak gauzatzeko ahalorde askietsia izango duen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzen duen notario ahalorde bat aurkeztu beharko dute. Bertan parte hartzaile guztiek Oiartzungo Udalaren aurrean duten erantzukizun solidarioa zehaztuko da.*

- \*\* *Atzerriko parte hartzaileek gaitasuna egiaztatzeke adierazitako dokumentuak euskarara edo gaztelerara itzuliak aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrean edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Kotsuletzeko Bulegoaren txostena aurkeztu beharko da, zeinetan egiaztatuko den, bere legeriaren arabera, kontratatzeke eta behartzeko gaitasuna dutela.*

*Era berean, lehiaketatik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.*

### **3.- “B” ARTXIBO ELEKTRONIKOAK edo KARTAZAL ITXIAK “OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN LANDA LURSAILAK ESKURATZEKO LEHIAKETA.**

**PROPOSAMENA**” titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- Eskaintako lursail bakoitzari dagokion **eskaintza ekonomikoa**, agiri honen **III. eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

*\* Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, ezarrirako balioa gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen parte hartzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

*\*\* Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den eskaintza ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

## 6. LEHIAKETA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egitera.

2.- Kontratazio mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko ditu “A” artxibo elektronikoak edo kartazal itxiak, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hori bai gerta litezkeen aldaketak Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira ([www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)). Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

Egintza horretan, kontratazio mahaiak artxibo edo kartazal horretan aurkeztutako dokumentuak eta agiriak kalifikatuko ditu, ekitaldi pribatuan.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak hala eskatuta, parte hartzaileek ardurapeko adierazpena, erantzukizunpeko adierazpena edo dagokien dokumentazioa zuzendu beharko dute, zuzentzeko moduko akatsen bat antzemanaz gero. Halako kasuetan, eragindako parte hartzaileari 3 eguneko epea emango zaio, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Ez baldin bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio organoak edo mahaiak ulertuko du parte hartzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Dena den, aurkeztutako agiriek funtsezko akatsak edo zuzendu ezinako akats materialak edukiko balituzte, edo bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen ez badituzte, proposamena baztertu egingo da.

Halaber, parte hartzaileek aurkeztutako dokumentazioa dagokion zerbitzu teknikoari helaraziko zaio, eskaintako lursailek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiazta dezan eta lursail horien ezaugarri teknikoen taula osa dezan, karatulako 9. ataleko A) zatian aipatzen diren alderdiak kontuan hartuta.

3.- Kontratazio organoak garaiz argitaratuko du Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean, [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) helbidean, noiz izango den “B” artxibo elektronikoak irekitzeko egintza.

Egintza horretan adieraziko du kontratazio mahaiak zein proposamen onartu diren, zein baztertu diren eta zergatik, eta onartutako eskaintzen “B” artxibo elektronikoak irekiko ditu, hau da, proposamenak.

Zerbitzu teknikoaren txostena ikusita, eta baldintza agirietan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, gainerako eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu, karatularen 9. atalean ezarritako esleipen irizpideen arabera. Eskaintza bakoitzak puntuazio bat eskuratuko du, eta lortutako puntuazio horien arabera zerrenda osatuko da, puntuazio altuenetik baxuenerako hurrenkeran, esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne.

4.- Bukatzeko, puntuaziorik altuena lortzen duten parte hartzaileen aldeko esleipen proposamena egingo dio mahaiak kontratazio organoari, osatutako zerrendaren hurrenkera jarraituz, eta aurrekontua agortu arte.

Esleipen bat edo gehiago egindakoan geratutako aurrekontuaren kopuruak ez badu aukerarik ematen zerrendaren hurrenkeraren arabera hurrengo landa lursail zatia erosteko, hurrengo sailkatuaren aldeko proposamena egingo da, eta hori erosteko aukera ere egongo ez balitz, zerrendaren hurrenkera jarraituz hurrengoaren alde egingo da, eros daitekeen bat topatu arte.

5.- Edonola ere, kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak ebaluatzeko beharrezkoak direla irizitako txosten teknikoak eta juridikoak.

## **7. ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA**

### **1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena**

Eskaintzak ebaluatutakoan, kontratazio mahaiak kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena, osatutako zerrendako hurrenkera jarraituz, eta aurrekontua agortu arte.

Aurretik adierazi moduan, esleipen bat edo gehiago egindakoan geratutako aurrekontuaren

kopuruak ez badu aukerarik ematen zerrendako hurrenkeraren arabera hurrengo landa lursail zatia erosteko, hurrengo sailkatuaren aldeko proposamena egingo da, eta hori erosteko aukera ere egongo ez balitz, zerrendako hurrenkera jarraituz hurrengoaren alde egingo da, eros daitekeen bat topatu arte.

Esleipen proposamenek ez du administrazioarekiko eskubiderik sortuko proposatutako esleipendunen alde.

## **2.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen parte hartzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren aurkezpena.**

Esleipen proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaie eskaintzarik onena aurkeztu duten parte hartzaileei, zerrendako hurrenkera jarraituz eta aurrekontua agortu arte, 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak aurkez ditzaten.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, aurrekontuaren % 3ari dagokion zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio zehapen modura, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera hurrengo parte hartzaileari.

## **3.- Esleipena**

Dokumentazioa aurkeztuta, kontratazio organoak behin betiko esleipenak erabakiko ditu.

Esleipenak arrazoituak izan behar dute, parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaizkie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira ([www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)).

## **8. FORMALIZAZIOA**

1.- Salerosketa eskritura publikoan formalizatuko da Oiartzungo Udalarekin, esleipenaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo 2 hilabeteko epean.

Epe horretan, Udalak hala eskatzen badu, esleipendunak salerosketa egiteko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Salbuespenez, kontratazio organoak adierazitako epea luzatu ahal izango du modu arrazoituan.

2.- Esleipendunak salerosketari uko egiten badio, dagozkion betebeharrak eta baldintzak betetzen ez baditu, baldintza agirietan jasotako eskakizunetara egokitzen ez bada, edo berari egotz dakiokkeen edozein arrazoirengatik kontratua ezarritako epean formalizatzen ez

bada, administrazioak kontratua ez egitea eta lursaila ez erostea erabaki ahal izango du. Kasu horretan esleipendunak ezingo du erreklamaziorik egin, eta sailkapeneko hurrengoaren aldeko esleipen proposamena egingo da.

Halaber, edozein unetan eskaintzaren zehaztasun eza, akatsa edo faltsutasuna antzematen badira, edota eskritura publikoa formalizatu aurretik pertsona edo enpresa esleipendunak finikaren gainean dagoen karga askatzen ez badu –halakorik badago–, administrazioak kontratua ez egitea eta lursaila ez erostea erabaki ahal izango du, aurrez esleipendunari entzunda.

## **9. GASTUAK ETA ZERGAK**

Oiartzungo Udalak bere gain hartuko ditu lursailak eskuratzearen ondorioz sortzen diren gastu eta zergak, salerosketa formalizatzeko beharrezkoak direnak. Hala nola, eskritura publikoa, notaritza, jabetza erregistroa, tasak edota ondare eskualdaketak zergapetzen dituzten zergak, legez eskaintzailearen kontura direnak izan ezik.

## **IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

### **10. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo diren kontratuek izaera pribatua izango dute. Hala ere, kontratuen prestaketari eta esleipenari buruzko erabakiak egintza juridiko banangarriak dira eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratuak izan daitezke.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratuen prestaketa eta esleipena arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta honi atxikitako gainerako agiriak.
- Lehiaketa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratueta legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.  
Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua; Toki Erakundeen Ondasunei buruzko legeri espezifikoa (Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua); Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa, Toki Erakundeei aplikagarri den guztian, eta Lege horren Erregelamendu Orokorra onartzen duen abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretua; Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL), eta arauzko xedapen gisa SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, aurrekoekiko kontraesanen ez dagoen guztian indarrean dagoena (HAKLEO).
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

2.- Kontratuen ondorioei, aldaketari eta iraungitzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

3.- Agiri hau euskaraz idatzia izan da eta gaztelaniara itzulia. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoa lehenetsiko da.

### **11. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA**

1.- Kontratuaren prestaketari eta esleipenari lotutako edozein arazori dagokionez, bide administratiboan jarri ahal izango da errekurtsua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Era berean, kontratua, prestakuntza eta esleipenari dagokionez, epaitegi kontentzioso-administratiboari dagokio.

2.- Ondorioei eta iraugitzeari dagokionez, berriz, aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauen bidez erregulatuko da kontratua, eta epaitegi zibila izango da eskuduna.

## **12. KOMUNIKABIDEAK**

Jakinarazpenak eta komunikazioak ardurapeko adierazpenean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio, eta jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko da ardurapeko adierazpenean zehaztutako helbide elektronikora.

Proposamenak elektronikoki aurkezten diren kasuetan, edota parte hartzaileek proposamena aurrez aurre aurkeztuta ere hala adierazten dutenean, SPKLren 140.1.a).4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Bitarteko elektronikoko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

**I. ERANSKINA**  
**ARDURAPEKO ADIERAZPENA**

“.....jaunak/andreak, NA.....  
zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk.  
..... (posta elektronikoa.....),  
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean  
(edo.....-r)en izenean, IFK/NA....., hiria  
....., helbidea:....., etab.),  
**OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN LANDA LURSAILAK**  
**ESKURATZEKO LEHIAKETA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako  
baldintzak ezagututa,

**BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:**

I.- Parte hartzaileak badauzkala lehiaketaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasunak eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak proposamena aurkezten duenaren izenean jarduten duela, eta sinatzailea eta ordeztutakoa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikulua aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

III.- Parte hartzaileak Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak betetzen dituela eta konpromezua hartzen duela hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, horrela eskatzen bazaio.

IV.- Parte hartzaileak ez duela ordaindu gabeko zorrik Oiartzungo Udalean premiamendu bidean.

V.- Oiartzungo Udalarari baimena ematen diola behar diren artxiboetan kontsulta egiteko, egoki deritzon edozein Organismoren edo Administrazioen zerrendetan, adierazpen honetako edukia egiaztatzea.

VI.- Atzerriko parte hartzaileen kasuan, lehiaketatik edo kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegiaren jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokkeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

VII.- Honako hau dela jakinarazpenak eta komunikazioak bidali izanaren oharrak bidaltzeko posta elektronikokoaren helbidea:

*\* Kontuan izan, SPKLren 140.1.a).4º artikulua araberak, jakinarazpenak egiteko posta elektronikokoaren helbideak “gaitua” izan behar du, SPKLren Hamabostgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta kontratazio-organoak jakinarazpenak bitarteko horren bidez egitea erabaki badu.*

**EMAIL:** .....

**DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (\*)**

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Oiartzungo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(\*) *Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.*

- Bai
- Ez

**SINATZEKO LEGE-GAITASUNA**

*Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.*

<b>IZEN-ABIZENAK</b>		<b>SINADURA</b>
<b>N.A.N</b>	<b>DATA</b>	

*Oiartzungo Udalak administrazio lizentzien, udal baimenen eta emakiden, eta udal ondasun publikoen kudeaketari lotutako datuak tratatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrira. Datu pertsonalak gaian eskumena duten organo judizialei eta auzitegiei eta administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, haien trataera mugatu edo horren aurka egin dezake, baita informazioa zabaldu ere, komunikazio bat igorrita, Udalaren helbidera edo [dbo-dpd@oiartzun.eus](mailto:dbo-dpd@oiartzun.eus) posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) webgunean eskuratzeko.*

.....en, 202...ko.....an

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

**II. ERANSKINA**  
**LURSAILAREN**  
**EZAUGARRIAK**

“.....jaunak/andreak, NA.....  
zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk.  
..... (posta elektronikoa.....),  
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean  
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria  
....., helbidea:....., etab.),  
**OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN LANDA LURSAILAK**  
**ESKURATZEKO LEHIAKETA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako  
baldintzak ezagututa,

**BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:**

I.- Parte hartzaileak ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta lehiaketa arautuko duen gainerako dokumentuak, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Oiartzungo udalerrian dagoen honako higiezina besterentzeko eskaintza egiten duela:

Lursailaren izena	
Finka zenbakia	
Katastroko erreferentzia	
Azalera (Ha)	

III.- Eskaintzen den lursailak baldintza agiri honetan jasotzen eta eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituela.

IV.- Eskaintzen den lursaila Jabetza Erregistroan bere izenean edo ordezkatzeko duen pertsonaren izenean inskribatuta dagoela, eta azken kasu horretan, higiezina saltzeko ahalorde nahikoak dituela.

V.- Halaber, eskaintzen den lursailak ez duela kargarik, errentaririk, okupatzailerik edo prekaristarik, honekin batera aurkezten den erregistro ziurtagirian jasotzen denarekin adostasunean, eta berehala eskuratu eta Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izateko baldintza juridikoetan dagoela.

VI.- Halaber, eskaintzen den lursailak egunean dituela partzelari eragiten dioten gastu, zerga eta ordainketa guztiak.

VII.- Oiartzungo Udalari baimena ematen diola behar diren artxiboetan kontsulta egiteko, egoki deritzon edozein Organismoren edo Administrazioen zerrendetan,

adierazpen honetako edukia egiazta dezan.

VIII.- Era berean, Oiartzungo Udalarari baimena ematen diola eskaintzaren xede den lursailera sartzeko, lursailaren kontserbazio-egoera ikuskatzeko eta egiaztatze eta beharrezko neurketak egiteko, nahi bestetan, aldez aurretik eskatuta. Baimen horrek argazkiak edo bideoak egitea barne hartzen du.

.....en, 202...ko.....an

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

**III. \_\_\_\_\_**  
**ERANSKINA**  
**PROPOSAMEN EREDUA**

“.....jaunak/andreak, NA.....  
zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk.  
..... (posta elektronikoa.....),  
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean  
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria  
....., helbidea:....., etab.),  
**OIARTZUNGO UDALERRIAN DAUDEN LANDA LURSAILAK**  
**ESKURATZEKO LEHIAKETA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako  
baldintzak ezagututa,

**ADIERAZTEN DU:**

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta lehiaketa arautuko duen gainerako dokumentuak, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Parte hartzaileak kontratua burutzeko indarrean dagoen araudiak eta lehiaketa araupetzen duen baldintza agiriak eskatutako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeke konpromisoa hartzen duela eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, baldintza agirian zehazten diren baldintzak eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzak beteko dituela.

IV.- Esandakoaren baitan, Oiartzungo udalerrian dagoen honako higiezinaren besterentzeko eskaintza egiten duela:

Lursailaren izena	
Finka zenbakia	
Katastroko erreferentzia	
Azalera (Ha)	

V.- Hori guztia kontuan hartuta, lursailaren besterentzeko honako **eskaintza** egiten duela:

GEHIENENKO PREZIOA (€/Ha)	ESKAINITAKO PREZIOA (€/Ha)
3.500	.....

.....en, 202...ko.....an

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

